

KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARA

LOPPE

URRATS BER



EUSKARALDIA

HITZEKIN
EGIN ETA ERAGIN

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



ARDORA
 arraindegia

Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 © 623 47 57 52
 ardoraarraindegia@yahoo.com
 ORIO



arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin
 giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86



azkue
 auto

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

Carmen eta Txomin
 ARRAINDEGIA

TXOMIN ARRAINDEGIA
 Eusko Gudarien kalea, 44
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
 Arizaga kalea
 943-83 05 37



fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoa
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantza kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28





IGLESIAS
 SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

ATEAK
 ZOKALOAK
 ARMAIRUAK NEURRIRA
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 AROZTEGIA OROKORREAN





KARKARA 443

2022-URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Iritzia Aitziber Arzallus
<i>Zenbat artista</i> | | |
| 6 | Hitz tantak Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Elena Etxeberria</i> | 24 | Erreportajea Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Euskaldian parte hartzeko prest</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Aitziber Arzallus
<i>Herriaren besarkada</i> | 30 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Bi mundu bira: Elkanorenak 500 urte, Julio Villarrenak 50</i> |
| 10 | Gutunak | 34 | Klik! Aitziber Arzallus
<i>Historiak jantzi du horma</i> |
| 13 | Herrian galdezka
<i>Zeure buruari erronkarik jarri al diozu ikasturte berrirako?</i> | 38 | Erreportajea Aitziber Arzallus
<i>Ikasteko sekula ez baita berandu</i> |
| 14 | Erreportajea Aritz Pardina
<i>Zaletasunean urratsa aurrera</i> | 41 | Osasuna Aiora Larrañaga
Solaberrieta
<i>Eider Laskibar: "Garrantzitsua da egiten denarekin gozatzea"</i> |
| 20 | Akuilua hartuta Alazne Arruti
<i>Energia herritik herriarentzat</i> | 42 | Plazan bazan |
| 21 | Nire honetan Onintza Lete Arrieta
<i>Zahar jende hori</i> | 44 | Zerbitzuak |
| 23 | Moila bazterretik Garbiñe Manterola | 45 | Agenda |
| | | 46 | Hasi bertsotan Karmele Oliden
<i>Sineskeriak</i> |

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta
Erredaktore taldea
Aitziber Arzallus
Onintza Lete Arrieta
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Publizitatea
Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Aritz Pardina
Alazne Arruti
Garbiñe Manterola
Iñaki Iturain
Karmele Oliden

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale




Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
UDALA



KAIOA

 **kaioa_denda**
 **www.kaioa.es**

Gabon TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantza kalea, 10 943-24 89 46



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



KATU HORIA

albaritza klinika

ESTROPALARZ, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

LORRIOLAIAK
668891129

ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

K·U·K·U·A·R·R·I

ELEKTRIZITATEA

943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 behe C · ZARAUTZ
kukuarri@kukuarri.com



kutixi

kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com



LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Zenbat artista



AITZIBER ARZALLUS

Artistaz betetako herria da Orio. Zenbat eta herriko jende gehiago ezagutu, orduan eta garbiago daukat hori. Emaiozue begiratu bat eskuartean daukazuen aldizkariari, eta esango didazue.

Herritarrak beti dira protagonistak gurean, baina, kopuruz, gutxitan egongo ginen urriko aldizkarirako adina lagunekin —aukeratutako gaiek hala eskatu digutelako izan da hori, ez beste ezergatik—. Aritz Pardina lau musikarirekin egon da; Aiora Larrañagak hamar bat lagun elkarrizketatu ditu eta, gainera, kolaborazio mordoxka lortu; eta neu dozenatik gora herritarrekin egon naiz mahaiaren bueltan berriketan. Orain, inprentara bidali aurreko azken begiratu ematen ari naizen honetan, konturatu naiz zenbat artista bildu ditugun aldizkari bakar batean. Era askotakoak, bai, baina artistak denak.

Batzuk artistak dira artea egiten dutelako. Esate baterako, Ane Blazquez, Alba Carretero, Ramunas Almanaitis eta Axi Sarasola. Goi mailako musikariak dira laurak, musika egiten dute; artea, letra larriz. Edo Udane Juaristi, kanpineko kanpoaldeko horma Orioko historiaz jantzi duena. Egin duen muralari begiratu bat botatzea aski da zer-nolako artista den ohartzeko. Izatez azkoitiarra da, baina ia hilabetez Orion lanean jardunda, kostako haizeak zertxobait eragingo zion hari ere.

Beste batzuk, berriz, artistak dira egiten duten horretan. Adibidez, Imanol Alguacil futbolean eta Elena Etxeberria sofbolean.

Eta horiez gain, ausartuko nintzateke esatera badirela beste era bateko artistak ere: berezko artistak, alegia, artistak direnak beren izaeragatik. Zeuek erabaki horietako zenbat datozen ondorengo orrietan, eta zenbat gurutzatzen dituzuen egunero kalean. Nik dezente, eta hori, zuen gehienon aldean herriko jende gutxi ezagututa. Hemen izen-abizenez jartzen ez naiz hasiko, baina nik uste zerrenda polit eta interesgarria osatuko nukeela. Eta botatzen hasita, esango dizuet deseatzten nagoela horiek guztiak banan-banan gurera ekartzeko, ziur nagoelako denek izango dutela zer kontatua, eta badakidalako gainontzeko herritarrek zeinen gustura irakurriko dituzten haien esanak. Herriko artistak bixigarri baitira gurea bezalako hedabide batentzat. Beraz, badakizue, animatu, zain gaituzue eta! ■■■

**"ARTISTAZ BETETAKO
HERRIA DA ORIO,
GEROZ ETA GARBIAGO
DAUKAT HORI"**

bertako -REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

DOTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA

943 903 450

www.bertako.eus



Elena Etxeberria

TESTUA ETA ARGAZKIA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Sofbolarekin lotura estua duen norbait baldin bada herrian, huraxe da Elena Etxeberria (Orio, 1975). Izan ere, 1992. urte hasieran taldea sortzeko deialdia egin zenetik dabil buru-belarri kirol horretan murgilduta. Kuadrillako batekin animatu zen taldera sofbola probatzeko asmoz, eta 30 urte ondoren, bertan jarraitzen du.

1990eko hamarkada hasieran nahiko ezezaguna izango zen sofbola, ezta?

Bitxia badirudi ere, garai hartan izan zen hemen inguruan sofbol talde gehien: Hondarribian, Zumarragan, Donostian bi eta Bizkaian ere bazeuden beste batzuk. Guztion artean Euskal Liga jokatzeko genuen. Pixkanaka, gutxitzen joan dira taldeak, ordea.

30 urtetan aldaketa asko izan al dira?

Bai, asko. Lehenengo arraun elkartearen atal bat izan ginen, eta Espainiako Ohorezko Mailan jokatzeko hasi ginenean sortu genuen kluba. Zaragueta Eskolako frontoian hasi ginen entrenatzen, eta handik gutxira, udalak zelaia egin zigun libre zeukan lur sail batean. Zelai horretako oroitzapen oso onak dauzkagu. Egia da teknikoki ez zela oraingoa bezain ona, baina gure zelaia zela sentitzen genuen. Kanpotik etortzen zirenek ere gogoan dute, *Baso ondoko zelaia* hots egiten zioten.

Taldea bera ere mailaz igotzen joan da.

Bai, hasieran Orioko jokalaria bakarrak osatzen genuen taldea, baina ohorezko mailara igo ginenean, lagun batzuk etorri ziren gurekin jokatzera, errefortzu gisa. Beti izan ditugu kolaborazioak, baina beti deialdekoak izan dira, lagun artekoak. Batzuk hemen inguruko jokalaria eta beste batzuk atzeritik etorritakoak ere bai. Horiek guztiak gure etxeetan hartu izan ditugu. Horrela etorritako jokalaria gehienak Europako Txapelketan edo Euskal Selektzioarekin kanpoan egindako egonaldietan ezagututakoak dira. Sofbola mundu txiki bat da, eta laguntasun handia egoten da. Ohikoa da jendea gonbidatzea, eta gu ere gonbidatu izan gaituzte.

Harreman horiek sofbolak duen xarmaren parte direla sentitzen al duzu?

Bai, niri lagun giro hori gustatzen zait, eta lehiaketaz gain, sofbolari lotutako jarduera asko egiten ditugu taldean.

Sofbola zure bizitzako parte garrantzitsua izango da.

Bai, dudarik gabe. Batzuetan, nahi baino gehiago. Uda honetan, esaterako, ohorezko liga abuztuaren bigarren asteburuan amaitu genuen, eta dagoeneko gaztetxoekin entrenatzen hasiak gaude. Gurea talde txikia da, eta denetarik egitea tokatzen zaigu: jokalaria, gaztetxoekin entrenatzaile, laguntzaile... Gaztetxoekin gain-gainean egotea gustatzen zaigu, lana ondo egitea eta merezi duten arreta jartzea. Ohorezko mailako taldearen entrenatzailea ere, Patxi Arnal, senarra dut.

Ez da egongo klub batean 30 urtetik gora daraman jende asko, oraindik partidak jokatzeko jarraitzen duena.

Egia da ohorezko mailan partidak jokatzeko ditudala, baina nire rola gazteei laguntzea izaten da nagusiki, esperientzia faktore garrantzitsua izaten delako maila horretan. Bestalde, 40 urtetik gorako txapelketak jokatzeko ditut. Iaz, esaterako, Euskal Selektzioarekin master mailako Europako Txapelketa bat jokatu nuen.

Zer nahi zenuke taldearentzat?

Nahi nuke berriz ere taldeak Europako Txapelketa jokatzeko aukera izatea. 2010-2013 urte artean oso ondo jardun genuen, ligan bigarren sailkatuta, eta Europako Txapelketa jokatzeko txartela lortu genuen. Esperientzia ahaztezina izan zen, eta nahi nuke gaur egungo taldeak hori bizitzeko aukera izatea. Bestalde, nahi nuke gaztetxoek Espainiako Txapelketa irabaztea ere. Azkenekoz izurritearen aurretik irabazi genuen, Orion bertan.

Bide horretan, taldeari lotuta jarraituko al duzu?

Bai, beti dago zereginen bat klubean. Egia da zenbait urtetan egon naizela orain baino deskonektatuagoa, semeak jaio zirenean eta txikiak zirenean, batik bat. Dena dela, mundu hau asko gustatzen zait eta taldeari lotuta jarraituko dut, modu batera edo bestera. ■■■



Herriaren besarkada

ARGAZKIA ETA TESTUA:

AITZIBER ARZALLUS

Esaera batek dio irudi bakar batek mila hitzek baino gehiago esaten duela, eta albokoa da horren adibide: umeen aurpegietan ikusten den ilusia, Imanol Alguacilen irribarrea, Mendibeltzeko harmailak jendez gainezka eta herritarrak zutik, txaloka. Irailaren 21ean Orioko futbol zelaian ziren gehienen oroimenean luzaroan iltzatuta geldituko dira arratsalde hartan bizitakoak, baita Alguacilenean ere. Orioko Udalak antolatutako ekitaldian, Orioko eta Zarauzko futbol elkarteetako ordezkariak eta kirolariak ere parte hartu zuten, denak batean Alguacili eskerrak emateko. Eskerrak eta besakarda, herriaren besarkada, herritarren besarkada, momentu zailenetan gogoan izan dezan herria berarekin dagoela. ■■■





Ikasturte berria abiatu dugu Ostargin

OSTARGI ELKARTEA

Orioko Ostargi elkartearen hainbat ikastaro eskainiko ditugu: *patchwork*-a, pintura, *quilling*-a, gantxilloa edo kakorratza, tapizeria, sukaldaritza eta joskintza.

Norbaitek parte hartzeko interesa balu, gurekin harremanetan jar dadila, ostargi123@hotmail.com helbidera idatzita edo 699 20 44 94 telefono zenbakira deituta.

Zaharren Babeslekuko kideak Andaluzian

ORIOKO ZAHARREN BABESLEKUA

Irailean, Zaharren Babeslekuko kideok bidaia egin dugu Andaluziara. Izurritearen aurretik, ohitura genuen irailean bidaia luze bat egiteko, eta osasun egoera egonkortu dela ikusita, aurten 41 lagun Andaluziara joan gara, bi urteko etenaldiaren ondoren.

Bestalde, ikasturte berria ere abiatu dugu urrian. Hilaren 5ean egin genuen denboraldiko lehen bingo saioa, eta azaroan Arantzazura irteera egiteko asmoa dugu.

Sinadura bilketa Aian

HERRITAR TALDE BAT

Sinadura bilketa abiatu dugu Aian anbulatorioko lehen arreta zerbitzua bermatzea eskatzeko Osakidetza. Izan ere, azkenaldian, herriko



Zaharren Babeslekukoak Chipionan.

medikuak oporrak hartu dituenean edo beste arrazoi batengatik etortzerik izan ez duenean, ez dute ordezkorik bidali Aiara, eta kezkatuta gaude. Uda honetan esaterako, medikurik gabe egon gara. Egia da, erizaina etorri dela, baina hark ezin du eman sendagileak ematen duen zerbitzua.

Badakigu aiara asko ez dela egoeraz ohartu, denbora tarte horretan medikuarengana joan beharrik izan ez dutelako. Baina, badira herrian medikuarekin etengabeko harremanean egon behar duten gaixoak edo adinekoak, eta horiek dira hutsunea gehien pairatu dutenak. Izan ere, gure medikuak gertutik jarraitzen ditu kasu horiek, eta egoera zaurgarrian dauden aiara horiek zaintzeaz arduratzen diren pertsonen kontaktu zuzena izaten dute harekin. Udan, ordea, medikuarekin hitz eginda edo

medikua etxera etorrita konpondu zitekeen zenbait egoeratan, anbulantziari deitu behar izan diote.

Osakidetza helarazteko eskaera izenpetu daiteke farmazian, liburutegian eta anbulatorioan. Horrez gain, etxetik atera ezin dutenek edo herrigunetik urrun bizi diren herritarrek eskaerarekin bat egin dezaten, bide desberdinak ahalbidetuko ditugu.

Sinadura bilketa abiatu aurretik, 60 erreklamazio inguru sartu genituen Osakidetza, anbulatorioko erreklamazio orrien bidez, egoera salatzeko. Osakidetza banan-banan erantzun digu gutun ziurtatu bidez, eta esan digu kasu puntuala izan dela, eta zerbitzua bermatuta dagoela, baina gure kezka hor jarraitzen du. Izan ere, beldur gara Aiako medikua erretiratzeko denean, ez ote duten Aiako zerbitzua Oriara pasatuko.

Ortzakatik hondartzara bidegorria?

ENEKO GOZATEGI

ANIBARKO PORTUKO BIZILAGUNA

Anibarko Portuko auzokide bat naiz, askotan bizikletan ibiltzen dena, eta Orioko bidegorri sareari buruzko iritzia eman nahi nuke. Bide batez, 2022ko iraileko KARKARAN argitaratu zen *Izpiak eta Hizkiak* artikuluan esandakoa auzitan jarri nahi nuke.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko, KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Ortzaika eta Ibaiondo auzoen artean bidegorririk ez dago; bizikletek, oinezkoek, txakurrek, haurren karrotxoek eta abarrek elkarbanatzen dugun espaloï bat baizik. Gaztetxe parean, zoruen arteko desnibela saihesteko dagoen aldapatxoak koxka handiegia du, eta erortzeko arriskua dago. Pixka bat aurrerago joanda, Ibaiondoko etxeen parean, bidegorria oso estua da; alde batean kotxeak egoten dira aparkatuta, eta bestean, zuhaitzak. N-634 errepide azpiko pasabidea puntu beltz bat da bi norabideetan.

Moilako tartea ere ez da askoz hobe. Gune horren hasieran, udaletxe pareraino, autoak ibiltzen dira, zamaketa lanetan furgonetak sartu eta atera, errepidera sartzeko orduan ikusmena erabat mugatuz. The Pass, Arostegi eta Itsas-Etxe inguruan ere ez dago batere argi nondik hartu behar den Muntoko pasealekura joateko bidea. Bizikletazale gehienek The Passeko espaloïra jotzen dute, gero Arostegineko lantegi parean kotxe tartetik Itsas-Etxera jotzeko. Bereiziki arriskutsua da zati hori, eta hemen ere kaosa handia da: bizikletak, oinezkoak, autoak, karrotxoak, txakurrak eta abar.

Arrantzale kaleko bidegorria hartu nahi badugu ere, kontuak ez daude batere garbi. Oso nahasgarria da eta ahal duenak ahal duena egiten du, gehienek bide haxe: Eusko

Gudaritik barrena joan, Balea kalean ezkerretara jo eta bidegurutze bat pasatu ondoren, Olatu denda pareko bidegorria hartzen saiatu. Bidegorri zati horrek, ordea, hutsune handi bat dauka: ez dagoela beste bidegorri zati batekin lotuta, bertan hasi eta bukatzen da, inolako alternatiba seguru eta garbirik gabe. Gainera, zebra bide guztien inguruan ezin da zuzen joan, erremediorik gabe batera edo bestera jiratu behar delako. Beraz, bizikletazale askok nahiago du hondartzara joan edo etorri errepidetik barrena.

Egin berria den Bikamiota eta autopistako zubiaren arteko tartea zabalxeago izan zitekeela ere uste dut. Besteak beste, mugikortasun arauak gomendatzen dute hiru metroko gutxieneko zabalera izatea bi norabidetako bidegorrietan. Era berean, eta oinarritzko printzipio moduan, mugikortasun arau guztiek jasotzen dute oinezkoak eta bizikletak bidegorrietan ez nahastea.

Beraz, uste dut Orion daukagun bidegorri sareak gabezia handiak dituela: oinezkoen bideetan sartzen dira; seinaleak ez da nahikoak; eta ziklista hasiberri, adin txikiko eta eskarmentu gabekoentzat arrisku gune ukaezinak dauzka. Iruditzen zait bidegorri sare egoki eta seguru bat izatetik urrun gaudela.



Eskerrik asko, Marisa

ANA EGIBAR ETXEBERRIA

KARKARAK eskaintzen didan tarte hau aprobetxatu nahi dut Marisari bihotz-bihotzez eskerrak emateko. Pasa den asteburuan hartu zuen erretiroa, eta urte hauetan guztietan egin duen lan guztia aitortu nahi diot. 28 urtez lan egin dugu elkarrekin, eta bata bestearen sostengu izan gara. Lan asko egin dugu. Une zailetan elkar babestu gara eta beste askotan poztasuna elkarbanatu dugu. Eskerrik asko benetan, Ander, Igor, Nerea eta nire partez. ■■■

JAIOBERRIAK

• **Zoe Uranga Lertxundi.** Orion, irailaren 16an.

HILDAKOAK

• **Mariatxo Manterola Ikatzeta.** Orion, irailaren 16an. 85 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Oriko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



MARIJO
ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

MENDIZABAL
AROTZEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

Altixerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



Portu
Erreteta - Jateak

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orrio

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

BODEGON

Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa




generala
garraioak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Zeure buruari erronkarik jarri al diozu ikasturte berrirako?



ANDONI URANGA

Ikasturtearen hasierak baino urtearen hasierak gehiago motibatzen nau neure buruari erronkak jartzeko orduan, baina, egia esan, ikasturte hau asmo berri dezenterekin hasi dut. Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialean izena eman dut frantsesa eta alemana ikasteko, eta gustatuko litzaidake bizitza ohitura osasuntsuagoak hartzea ere. Ez dut esan nahi kirola egiten topera hasteko asmoa daukadanik, baina ondo legoke zerbait egiten hasiko banintz. Horrez gain, lanez aldatu nahiko nuke, baina ez oraingo lanean gustura ez nagoelako, irakasle izateko ikasketak egin ditudalako baizik. Ea aurki deitzen didaten epe luzerako eskaintzaren batekin. Horiek guztiak betetzen badira, ez da ikasturte txarra izango.



MIGUEL NACENTA

Neure buruari jarri diodan erronka nagusia ariketa fisikoa egiten jarraitzea da. Lehen ere kiroldegiko jardueretan parte hartu izan dut, baina udan atsedenaldia hartu dut, eta duela bi aste heldu genion berriz ikasturte berriari kiroldegian. Bat-batekoa izan da aldaketa, ariketa egiten hasi naiz eta badirudi nire gorputza aktibatu egin dela; oso ondo sentitzen naiz. Horrez gain, irakurtzea eta zinemara joatea ere asko gustatzen zait. Azkenaldian, esaterako, Donostiako Trueba Zineman arte proiektzioen zikloa eskaini dute, eta bertan izan gara; benetan interesgarria izan da. Orain, berriz, Principe Zineman opera proiektzioak abiatu dituzte. Lehenengo saiora ezin izan nuen bertaratu kanpoan nintzelako, baina gainontzekoetara joateko asmoa dut.



INTZA UNANUE

Ikasturtea berria hasten den bakoitzean bezala, oraingoan ere jarri dizkiot erronkak neure buruari. Udaz gozatu dut zentzu guztietan, baita jateko kontuetan ere, eta urritik aurrera hobeto jaten hasi nahiko nuke; hori da nire lehen erronka. Bestetik, ohi baino ltxaspeko buelta gutxiago eman ditut azken hilabeteetan, eta kirola egiten hastea ere jarri dut helburutzat. Gainera, lagunekin egoteko tartea ere hartu nahi nuke, bakoitza gure errutinan eta eginbeharretan sartzen denean, kosta egiten zaigulako. Horrez gain, erronka kolektibo bat bota nahi nieke herriko gazteei: *Ostiraltxoak* berpiztea. Izurritearen aurretik parrandatxo politak botatzen genituen ostiraletan herrian, eta ez dugu ohitura hori berreskuratu oraindik. Beraz, orain dugu horretarako aukera. ■



Zaletasunean urratsa aurrera

Haur eta gaztetxo asko dabil Danbolin musika eskolan askotariko musika tresnak ikasten. Hantxe hasi zuten bidea erreportaje honetako lau protagonistek ere, baina, gerora, zaletasunean sakondu nahi izan dute goi mailako ikasketak eginez, eta horretan ari dira gaur egun.

Testua: Aritz Pardina.
Argazkiak: Utzitakoak.

Gogorra eta luzea da musikaren bidea, musika ikasketak egin nahi dituenak hamar urteko ibilbidea egin behar izaten duelako goi mailako kontserbatorioan sartzeko: lehenik, oinarrizko mailan lau urte eta, ondoren, bigarren hezkuntza eta batxilergoarekin batera, maila profesionaleko beste sei urte. Hori guztia egin eta gero, lau urte behar dira musikako goi mailako ikasketak (unibertsitate ikasketen baliokideak) egiteko. Horiek amaituta, noski, badago graduondoko ikasketak egiteko aukera ere. Bada, Orion badira bide horri heldu dioten zenbait herritar. Hala, ikasketa prozesuaren fase ezberdinean dauden herriko lau musikari elkarrizketatu ditu KARKARAK, euren bizipenak ezagutzeko: Ane Blazquez, Ramunas Almanaitis, Alba Carretero eta Asier Sarasola.

"Piano bakarlaria izatea gustatuko litzaidake"

ANE BLAZQUEZ PIANO IKASLEA

Pianoa da zure instrumentua. Nola hasi zen zure musika ibilbidea?

Danbolin musika eskolan sartu nintzen 4 urterekin, eta 7 urterekin ekin nion Audra Almanaityterekin pianoa jotzeari. Handik pare bat urtera, hark Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioko sarrera prestatzea gomendatu zidan. Orain, 14 urterekin, han nabil, profesionaleko hirugarren mailan. Dena dela, Audrarekin ere jarraitzen dut musika eskolan.

Organoa ere jotzen duzu.

Bai. Izan ere, profesionaleko ikasleok bigarren instrumentua aukeratu behar izaten dugu. Beste musika tresnenezat, pianoa izaten da bigarren instrumentu hori; horregatik, nik beste bat aukeratu behar nuen. Hala hasi nintzen organoarekin. Praktika orduetan Orioko elizan aritzen naiz eta, gainera, mezetan ere jotzen dut.

14 urte bakarrik izanda, argi duzu musikako ikasketak egingo dituzula?

Bai. Nire helburua da goi mailako musika ikasketak egitea. Txikitatik ari naiz ikasten, asko gustatzen zait pianoa, eta hori da egin nahi dudana.

Nola bateratzen dituzu hezkuntza arautuko ikasketak eta musika ikasketak?



Orain arte ez dut zailtasun handirik izan. Horretarako, noski, garrantzitsua da lanorduak ondo antolatzea. Hori eginda, oraingoz ondo bateratu ditut bai ikastolako lanak, bai kontserbatoriokoak.

Nola ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Gustatuko litzaidake piano bakarlaria izatea. Gainera, duela hiruzpalau urte, Francisco Escudero orkestrarekin jo zuen piano bakarlari gazteena izan nintzen. Orduan konturatu nintzen piano bakarlaria izan nahi nuela.

"HEMEN MUSIKA
KLASIKOAK EZ DU BESTE
HERRIALDE BATZUETAN
DUEN GARRANTZIA"

Bakarlaria izateaz gain, bestelako piezak jotzeko prest egongo zinateke?

Musika estilo guztiak gustatzen zaizkit. Alde horretatik, ez nuke arazorik edukiko edozertara moldatzeko, beti ere, jotzen den hori kalitatezko musika bada.

Oro har, zer ematen dizu musikak? Beste ikasketen edo lanbideen parekoa dela uste al duzu?

Poza ematen dit pianoa jotzeak eta entzuteak. Horrez gain, jendea ezagutzeko aukera ere eman dit, lagunak egitekoa. Nire ustez, ez da beste edozein lanbide bezalakoa, ikasketak amaituta ere, jarraikortasun handia eskatzen duelako, alegia, egunero ikasten jarraitzea eta beti sasoiari egotea.

Zure ustez behar bezala balioesten al da musikaren mundua?

Musikari garrantzi gehiago ematen zaio Europa iparraldean. Hemen, oraindik, ez gaude haien mailan. Hori ez da, ordea, musikarien kalitateagatik, hemen maila handiko musikariak baititugu; punta-puntako orkestrak, esaterako. Dena den, hemen musika klasikoak ez du beste herrialdeetan duen pisua. Agian, oraintxe azaldutakoagatik, askok ez dute ulertzen musikako goi maila beste edozein gradu edo ikasketaren parekoa denik. Beti galdetzen dizute ea zerbait gehiago ikasiko duzun, musikarekin nahikoa ez balitz bezala. Badirudi jendearentzat musika ez dela serioa edo ez duela lanbide bezala balio.

"Biolinak askatasun handia ematen dit adierazteko"

RAMUNAS ALMANAITIS BIOLIN JOTZAILEA



Musika etxetik dakarkizu, zure ama (Audra Almanaityte), besteak beste, Orioko Danbolin musika eskolako piano irakaslea izan baita urte askoan. Hark eman al zizun musikaranzko bultzada?

Amari esker sartu nintzen musikaren munduan, bai. Hain zuzen ere, pianoa jotzen hasi nintzen 4 urterekin. Ondoren, baina, biolina ezagutu nuen, eta pentsatu nuen hura izango zela nire tresna. Inoiz ez naiz damutu egin nuen aukeraz, askatasun handia ematen didalako adierazteko.

12 urterekin sartu zinen Francisco Escudero kontserbatorioan. Nola oroitzen duzu etapa hura?

Niretzat etapa zaila izan zen, ikastolako eta kontserbatorioko egitekoak batzen zitzaizkidalako. Lan karga

handia nuen. Dena dela, etapa polita izan zela sentitzen dut, aukera asko eman dizkidalako: lagunak egiteko, bidaiatzeko...

Zer egin behar da lan hori guztia arrakastaz aurrera eramateko?

Arduratsu jokatu behar duzu zure egitekoekin eta, noski, ezinbestekoa da eskema bat jarraitzea. Bestela, ez dago modurik. Badago antolakuntza faltaren ondorioz bidean gelditu denik ere. Pentsa, batxilergoa eta kontserbatorioa une berean egin nituen bolada batean.

Eta batxilergoaren ondoren?

Lasaitu handia hartu nuen etapa hori itxi nuenean. Izan ere, nik gustuko nuenari atea parez pare zabaldu nion. Dena dela, ez nintzen segituan musikako goi mailako ikasketekin hasi; urtebetez irakasle partikularrekin aritu

nintzen instrumentuan sakontzen, eta sarrera probak prestatzen. Horri esker sartu nintzen, urtebete beranduago, Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan.

Han edo Euskal Herrian ikasi, alde handia dagoela esango zenuke?

Kultura aldetik, anitzagoa da Bartzelona. Oso hiri musikala da, jotzeko aukera asko ematen dituen. Kalean jotzeko ohitura handia ere badago; musika arnasten da hirian. Gainera, interprete asko etortzen dira gureru, mundu mailan entzutetsuak direnak. Bestalde, ikaskideak ere leku ezberdinetatik datoz.

Nabarmenduko nuke nazioartekoagoa dela, eta horrek esan nahi du munduko musikak ezagutzeko aukera handiagoa dagoela.

Zu ere ikus zaitzakegu sareetan, kalean eta agertoki txikietan jotzen. Nola uztartzen da hori musika profesionalarekin?

Dirudiena baino ohikoagoa da. Are eta gehiago; esango nuke musika ikaslearentzat lagungarria ere izan daitekeela beste erregistroetan aritzea. Izan ere, konfiantza eman dezake, eta askorentzat, jendaurrean jotzen ikasteko bide ona izaten da.

Musika: lana ala zaletasuna?

Musika lanbidea da niretzat, nire ogibidea. Oraitxe, musika egingo ez banu, ez dakit zer egingo nukeen. Noski, oso gustuko dut. Lehen esan bezala, adierazpide garrantzitsua da niretzat. Zentzu horretan, bada zaletasuna ere.

"Lesio batek ia behartu ninduen biolina uztera"

ALBA CARRETERO BIOLIN-JOTZAILEA

Musikarekiko zaletasuna nondik datorkizu?

Etiket, zalantzarik gabe. Gurasoak izatez ez dira musikariak, baina bai musikaren maitaleak. Etxean betidanik hainbat estilotako musika entzuteaz gain, urte mordoa daramatzate Salatxo abesbatzan kantatzen. Gainera, aitari klarinetea jotzea izugarri gustatzen zaio, eta aurten ama ere panderoarekin animatu dela dirudi. Azkenik, anaiak ere baditu musikarako grina eta abilezia, kantuan eta esku artean gitarra hartuta.

Inoiz ulertu duzu musika zaletasun bezala?

Denbora pasa soilaz ari bazara, ezetz esango nizuke. Txikitatik ekin omen nion biolinari ganoraz. Bestalde, lana eta diziiplina ere eskatzen ditu. Dena den, badu beste aldetik ere: izan ere, ondo pasatzeko eta disfrutatzeko egiten dudan zerbait ere badenez, zentzu horretan, bada zaletasuna, baita mundu profesionalean ere. Nahiz eta une zailak pasa behar izan, esango nuke niretzat azken xedea beti izan dela jolasa; sorkuntza. Lagunkidetasunaren mugetan sortzen den elkarizketa magikoa.

Alde handia dago Euskal Herriko goi mailako kontserbatorioen artean?

Instituzioei buruz galdetzen badidazu, bai. Egia esan, azpiegituren erabilera kontuan izanda, beti sentitu izan dut

Iruñean ez dagoela behar bezalako antolaketa. Askotan galdetu diot neure buruari nolakoa izango zatekeen bizitzan ari naizen bidaia musikal hau Musikenen lortu nuen tokia onartu izan banu. Han nazioarteko panorama apur bat barneratuago dute; hortaz, orokorrean, maila eta perspektiba zabalagoak topa ditzakezu irakasleen eta ikasleen artean. Mundu kulturala eta artistikoa, berriz, bi lekuetan antzera mugitzen dela esango nuke. Hori bai, Iruñean ez dago Donostiako Hamabostaldia bezalako jaialdi handirik, ezta Jazzaldi erraldoirik ere.

Lan munduari begira, zein izan zen zure apustua? Zertan zabilta orain?

Nire kasua nahiko arraroa izan da, goi mailako azken urteetan lesio bat izan bainuen, biolina alde batera uztera behartu ninduen. Errehabilitazio prozesua oso gogorra eta luzea izan zenez, bien bitartean bestelako ikasketak egitea erabaki nuen. Momentu horretan ez nekien sekula lehengora itzuliko nintzen, medikuak ere ez baitziren oso baikorrak. Gaur egun, mina nabarmen gutxitu denez, berriz

"TXIKITATIK EGIN OMEN NION BIOLINARI GANORAZ. LANA ETA DIZIPLINA ESKATZEN DITU"



ere biolinari ekiteko erabakia hartu dut, eta Groningenen nabil ikasketei jarraipena ematen, Herbehereetako iparraldean.

Musikaren mundua oso gogorra da. Zure ustez, gutxietsita al dago beste ikasketekin alderatuta?

Bai, gutxietsita dagoela iruditzen zait, Espainia mailan behintzat. Uste dut euskal herritarrek gero eta gehiago dutela Musikeneren berri, eta pauso handia dela esango nuke, lehen askok ez baitzuten sekula ere entzun musika ikasketa unibertsitarioak zeudenik ere.

Zerbait azpimarratu nahiko zenuke?

Tarte hau aprobetxatu nahiko nuke nire esker ona adierazteko lesio osteko errehabilitazioan hain garrantzitsuak izan diren bizilagunei. Etxean eta Anpolaitan, Lokaten eta baita Zarautzen ere, erabakigarriak izan diren pertsonen babesa (eta sabaia) izan ez banu, ez nukeen gaur berriz musika egiteko aukerarik izango.

"Dirudiena baino lan aukera gehiago ditu"

ASIER SARASOLA TRONPETA JOTZAILEA



Nolakoa izan da zure musika ibilbidea?

Musika eskolako urteez gain, Donostiako kontserbatorioan bi urte egin nituen. Bigarren mailan sartu nintzen, baina, irakasleekin hitz eginda, zertxobait aurreratzea izan nuen: bigarren eta hirugarren mailak batera egin nituen, eta baita laugarren mailako armoniako eskolak ere. Horren ondoren, profesionaleko bosgarren urterako sarrera proba egin nuen, irakasleek ezin zidatelako nik nahi

bezainbeste aurreratzen utzi; zuzenagoa zen sarbidea prestatzea. Dena den, bi urte egin ondoren utzi egin nuen; ez nuen titulazio profesionaletarako lortu. Horren orde, zuzenean goi mailako ikasketetarako sarrera proba egin nuen, eta sartu egin nintzen.

"EUSKADIKO
ORKESTRAREKIN ARITZEA
IKARAGARRIZKO
ESPERIENTZIA IZAN ZEN"

Zer alde dago zuzenean sartzarean edo profesionaletik sartzarean artean?

Zuzenean *handicap* handiagoarekin zoaz: azterketak desberdinak dira eta proba gehiago ere eskatzen dizkiote sartu nahi duenari.

Non egin zenuen goi maila?

Bartzelonan, ESMUCen. Han pasatu nituen lau urte. Musikenen ere saiatu nintzen; ez nintzen sartu, ordea. Dena dela, sartuta ere, agian Bartzelonara joango nintzatekeen. Esperientzia polita izan zen.

Musika eskolan urteak pasatu ondoren, zerk bultzatu zintuen musika ikasketak egitera?

Egia esan, ez neukan garbi musikaren munduan profesionalki aritu nahi nuenik. Musika eskolan nenbilela, txarangetan dezente ibiltzen nintzen. Hala, Segoviako (Espainia) lagun bat ezagutu nuen. Musikako karrera zuen, eta hark eman zidan bultzada. Dena den, ez nuen karrera egiteko xede garbirik; hori gerora erabaki nuen.

Aldea al dago Bartzelonan edo Euskal Herrian ikasi?

Goi mailako ikasketez ari garenean, instrumentuaren garapenaz ari gara. Hor, irakasleak edo mentoreak du pisu handiena, beraz, irakaslea bera da alderik nabarmenena, bakoitzak bere estiloa eta

metodoak dituelako. Horrez gain, aipa daiteke alde ekonomikoa ere, ESMUC publikoa baita eta, Musikene, berriz, pribatua.

Bestalde, Bartzelonako giroa biziagoa da musikari dagokionez. Hasteko, Bartzelonan Donostian baino aukera gehiago daude jotzeko. Askoz ere talde edo formazio gehiago daude entzuteko, eta baita jotzeko ere. Horrek esan nahi du lan irteerei begira, han aukera gehiago egongo lirakeela. Dena dela, ez da, inolaz ere, bide erraza.

Tronpetak zer lan aukera eskaintzen ditu?

Dirudiena baino aukera gehiago dago. Normalena litzateke, interpretazioa eta

musika garaikidea ikasi ondoren, talde handietan jotzea, orkestretan eta udal bandetan, esaterako. Horrez gain, talde txikiagoak ere badaude, kamerako musikariak adibidez, baina hortik bizitzea askoz ere zailagoa da. Ohiko beste aukeretako bat irakaskuntza da. Interpretazioa ikasi duten musikari askok bide hori hautatzen dute.

Euskadiko Orkestrarekin aritu zara zenbait kontzertutan. Nola sortu zitzaizun aukera?

Kontratazioari dagokionez, oposizioen antzekoa da orkestraren funtzionamendua: lan poltsa dago, eta bertako jendea ilaran deitzen dute

jotzera. Ni ez nengoen zerrenda horretan, baina jendea amaitu zitzaien. Halakoetan, zuzendariak irakasleengana jotzen dute musikariak bidal ditzaten. Horrela egin nituen kontzertu horiek. Bizipen aldetik, bada, pentsa: duela zortzi urte ia ez nuen musika klasikoa ezagutzen, eta kolpera, Mahlerren 2. Sinfonia jotzeko deitu zidaten, orkestra erreperitorioan dagoen formazio handienetakoarekin, hau da, orfeoi eta guzti. Ikaragarria izan zen esperientzia. Hori bai, presio handia sentitu nuen. Gauza serioa da, eta areto garrantzitsuetan izan ginen: Euskaldunan, Baluartan... ■

NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutututa aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karakara.eus e-posta helbidera bidali urriaren 21a baino lehen.

Saria: K5 txakolin kaxa bat. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



Iraileko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutututa zegoen asmatu behar zen. 18. orrialdean zegoen ezkutututa, eta **Lurdes Gabilondo** bazkidea izan da irabazlea.



Energia herritik herriarentzat

Badirudi energia dela fisikarien eta ingeniarien asmakizun bat. Hilero-hilero fakturan ordaintzen dugun anabasaren muina. Baina, egiazki, zer da energia? Aurrekoan lagun batek zioen lagunek, familiak, musikak, besarkadek eta goxotasunak ere ematen digutela energia. Baina horiek nekez neur daitezke zenbakitan.

Energia ezinbestekoa bilakatu dugu gure bizimodua elikatzeko. Sukaldean aritzeko, garbiketarako, arropak egiteko, beroketarako eta hozketarako, mugitzeko... Argia joan eta bizitzarekin jarraitzeko ezdeus sentitzen gara.

Energia gure ingurutik lortzen dugu, naturako erregai naturalak —egurra, ikatza, lastoa, gasa— eta ziklo naturalak —haizea, ibaietako ura, eguzkia eta

abar— baliatuta. Baina, denboraren poderioz, gure beharrak konplexuagoak bihurtuz joan dira, eta egun, gure ekintza gehienak argindarraren, gasolinaren, gasolioaren eta abarren bidez asetzen ditugu. Zer ari da gertatzen, ordea, energiaren prezioarekin? Zerbait ulertzekotan, komenigarria da argindarraren merkatuaren inguruko ideia nagusiak ezagutzea.

Merkatu horretan, egunero, hurrengo eguneko ordu bakoitzeko argindarraren prezioak finkatzen dira, eta estatu mailan, eredu marginalista deritzona erabiltzen dugu. Demagun bost lagun elkartu eta merkatura goazela tomateak erostera. Bakoitzak argi du gehienez zer prezio ordaintzeko prest dagoen: hiru euro, hamar euro, 25 euro, 40 euro eta 60 euro

ordainduko dutela esan diote bitartekariari. Bada, gaurkoan, soilik hiru tomate daude. Nekazarietatik lehenak hiru euroan eskaintzen du; bigarrenak, sei euroan; eta azkenak, 25 euroan. Azken tomatea 25 euro ordaindu denez, hori baino gutxiago ordaintzeko prest zeudenek ez dute tomaterik eskuratu. Gainerakoek, aldiz, gehiago ordaintzeko prest egon arren, 25 euro ordaindu dute, eta, horrenbestez, nekazari guztiek tomate bakoitzagatik 25 euro jasoko dituzte.

Ziurrenik, zentzurik ez duela pentsatuko duzue; baina, itxaron. Izan ere, badakizue zein den arazorik larriena? Lehen, merkatu horretako prezioen muga megawatt orduko 0 eta 180 euroen artean ezarrita zegoen; baina, iaz, Espainiako Gobernuak moldatu egin zuen Europako

HAUXE BAI JENEROA!



gainerako merkatuetara parekatu beharra argudiatuta, eta egun, 500 eta 3.000 euro artekoa da muga. Eta, badakizue zer gehiago? Gaur egun, ekoizle bakoitzaren eskaintza prezioa ez dagoela mugatuta argindarra sortzeko izan dituen gastuen arabera. Ondorioz, ura eta eguzkia baliatzen dituztenek edo ikatza eta gasa erretzen dituztenek prezio berean eskain dezakete argindarra.

Aitortu beharra dago Errusiaren eta Ukrainiaren arteko gatazkak merkatuan eragin duela, gasarekiko eta energia ez berriztagarriekiko menpekotasun izugarria baitugu. Baina, kontua harago doa: gasa erretzen duten gorbatahun eta politikariek ura baliatzeko instalazioak jabetzan dituzte, eta prezio garestienak ezarri dituzten teknologietako bat hidroelektrikoa da. Gasa

erretzearen prezio berean, guztion ura pilatu eta nahi dutenean askatu dezakete betikoek, euren mesedetan.

Orduan, zer? Horri guztiari aurre egiteko, elkarren artean batzea da aukera. Merkatuarekiko independente izateko, lekuan lekuko eta gure baliabideen araberrako energia sortzea, eta gutxiago kontsumitzeko neurriak hartzea. Gure teilatuak bizilagunekin partekatze prest egotea. Hori sustatzeko, energia komunitateak eratzen hasi dira gure inguruan. Herritarrak, udalak, elkarteak, enpresak, herritar zaurgarrienak... Denak lankidetzan, behetik gorako ekimenak sortzen. Baina, kontuz, horretan ere betikoak hozkaka hasita baitaude. Egin dezagun energia, herritik eta herriarentzat. ■

NIRE HONETAN



ONINTZA LETE ARRIETA

Zahar jende hori

Adinekoen Nazioarteko Eguna izan zen urriaren 1a. HITZAn gehigarria argitaratu genuen, eta nahikoa lan izan genuen hau lotzen eta hura idazten. Astea adineko jende artean pasatu nuela konturatu nintzen, baina ez gehigarriagatik soilik, ezta bereziki harengatik ere.

Kontuak ateratzen hasi, eta ohartu nintzen hiru herritan hiru elkarrizketa egin nituela —bana Orion, Zarautzen eta Zumaian—, eta denetan jubilatutako herritarrak izan zirela protagonista. Kasualitatea? Ez dut uste.

Oro har, gizarteak gutxietsi egiten ditu bere edadetuak —neuk ere bai, onartu behar dut—; baina, pixka bat hausnartzen hasten bagara, ezingo dugu ukatu zenbat lan egiten duten pertsona horiek jubilatuta ondoren. Horregatik, gaurkoan haietako baten aldarrikapenak ekarriko ditut hona: jubilatuta daudela, baina ez erretiratuta; eta ez esateko "eske zuen garaian...". Beraiek eta gu, denok garai berean bizi garelako. Gaur, hemen.

Bizitzan *slow live* gehiago praktikatuko bagenu, agian izango genuke beraien esperientziak aditu eta ezagutzeko aukera, eta gero, balio digun hori hartzeko gure bizitzarako. Azken esaldi hori ez da adineko batek esana; amona zaharrari entzuten dakien 15 urteko gazte baten hausnarketa da. Aupa hi, Garazi! ■



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

SUKIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29

XS arkitektura www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 behea · ZARAUZ · 943-13 43 58

eraikuntza zerbitzuak
eraikinen mantenua
errehabilitazioak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
obrak



XIXARIO
Erregia

Txuleta eta arrainak
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19



**JARRI
HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net



ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teiltatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

Zarautz 

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura Beilatokia ·
Lekualdatzeak · Eginbide guztien tramitazioa

ORAIN ABENDAÑON GAUDE
Urteta bidea 2, ZARAUZ
943-89 49 37 · 943-42 21 29
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiopatia, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Sineskeriak



GARBIÑE MANTEROLA

Lehengusuak aurpegiratu zidan. Nola zitekeen ni zientzialaria izan, ikerketa munduan jardun eta horrelako sineskeriak laintzat hartzea. Baina sineskeria baino ohitura dela esango nuke. Ohitura osasuntsua, izan ere.

Aitona Nemesiori ikasi nion. Igerilari aparta zen, itsasoari lotutako gizona. Zarauzko kostan bainatzea debekatu zioten egunean etorri zen haren gainbehera. Baina noan harira. Hark erakutsia da irailean bederatzi egunez bainu bat hartu eta urte osorako katarroak, gripeak eta halakoak uxatzen direla. Egunek jarraian behar dute izan, hilabeteko edozein tartetan. Eta, noski, itsasoan. Ur gazirik gabe ez da magiarik. Urte luzeetan errepikatu dut ohitura. Lehengusuaren erronkari erantzun, eta zientzialari senarekin aztertu dut kontua.

Hipotesia: egunero itsasoan bainu bat hartzeak osasuntsu egiten al nau?

Metodoa: sineskeriaren baldintzak bete eta nire gorputzean duen eragina aztertzea. Gutxienez hamar alditan eginga, datu estatistiko esanguratsuak lortzeko.

Emaitza: uda osteko, opor ondorengoko umore hobetze handia. Buru osasuna, osasunaren zati garrantzitsuenetakoa denez, hipotesiaren baieztapena.

Ondorioa: bederatzi bainuen sineskeria baino, uda luzatzeko bide erabilgarria izan daitekeela frogatu dut.

Alegia, aitzakia galanta dela. Lanean hasita ere, ikasturteko betebeharrak jan aurretik udarari agur eta ohore egiteko modu bikaina. Kostan bizi naizenaren ospakizuna. Barrualdekoak barrualdera bidali ditugula eta guri lasaitasun pixka bat etorri zaigula konturatzea. Gatza azalean, hondar aleak hanka azpitan eta segi aurrera. Aurtengoan arraro sentitu naiz. Uda beroa, ura inoizko beroena. Eta klima aldaketaren arriskuak oso presente izan ditut irailean. Aitonak niri moduan, nik ilobei ere kontatu nahi diet sineskeria. Pittin bat moldatuko dut tonua eta ipuin zientifiko moduan azalduko diet. Errezeloa dut, hipotesi berriak proposatu beharko dizkiedala ordurako. Itsaso maila igotzearekin eta urtaroen berotzearekin baldintza berriak izango ditu uda luzatzeko metodoak. Urrian eta frontoiko aldapan izango den arrapala berrian kunplitu beharko da bainuen bederatziurrena. ■■■

"IRAILEAN BEDERATZI EGUNEZ BAINU BAT HARTUZ, URTE OSORAKO KATARROAK UXATZEN OMEN DIRA"

IBER glass 

Kristalen konponketa eta aldaketa
Eguzki lamina ilunak
Errotulazioa
Seguruekin kontzertatuta
Txanda eskatzeko: 689 34 11 01

glass
auto



Estropalari, 12



LAIARAN

Zer nahi dezu
pertsonalizatu?



ORIO
marea bizian

Euskara

2022

EUSKARAZ GAZTE LITERATUR LEHIAKETA

OINARRIAK

1. «Euskaraz Gazte» literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako jendearen artean.
2. Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
3. Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
4. Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
5. Lanen luzera librea izango da.
6. Epaimahaiaik gaiaren gertutasuna baloratuko du.
7. Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
8. Gaia librea izango da.
9. Lanak aurkezteko era:

Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon alpatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan

egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena. Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefonoa.

10. Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.

11. Sariak hauek izango dira:

IPUINEN ATALA

1. saria	300 €
2. saria	200 €
3. saria	150 €

Bi accesit, bakoitza 100 eurokoa

BERTSO EDO OLERKIEN ATALA

1. saria	300 €
2. saria	200 €
3. saria	150 €

Bi accesit, bakoitza 100 eurokoa

12. Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko euskara-teknikariak, Aiako kultur teknikariak eta KARKARA aldezkariko kide batek osatuko dute. Epaimahaia hutsik utzi ditzake sariak.
13. Lanak aurkezteko tokia eta epea: Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira. **2022ko azaroaren 15a** izango da horretarako azken eguna.
14. Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

orio.eus



Euskaraldian parte hartzeko prest

*Hitzez ekiteko garaia da goiburu hartuta, ate joka da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra, hizkuntza erabileran eragitea xede duen ariketa kolektiboan *ahobizi* edo *belarriprest* gisa parte har dezakete norbanakoek. Ariketa hori egingo duten lau oriotarrekin eta aiar batekin hitz egin du KARKARAK, egitasmoak zer ekarpen egin dien ezagutzeko.*

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Miriam Garcia**.

Gero eta gutxiago falta da Euskaraldirako, eta Aiako eta Orioko batzordeak ariketa sozial hori gizarteratzeko lanean ari dira duela hainbat astetatik. Jada zabalik dago egitasmoan izena emateko aukera, eta aurreko bi edizioetan bezala, norbanakoek *ahobizi* edo *belarriprest* roletan parte hartu ahal izango dute. *Belarriprest* direnek besteek beraiei euskaraz egitea eskatuko dute, eta rol hori hartzeko euskara ulertzea izango da baldintza bakarra. Euskaraldiko kideek argi dute: "Gakoa jokaeran dago, ez gaitasunean". *Ahobiziek*, berriz, euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute uneoro, eta euskaraz ulertzen ote duten ez dakitenei lehen hitza, beti, euskaraz egingo diete; hartzaileak euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko dute. "Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da".

Ariketa kolektiboan parte hartzeko *online* eman daiteke izena, *euskaraldia.eus* webgunearen bidez eta, horrez gain, herriz herri egingo diren ekitaldietan ere egongo da horretarako aukera.

Ariketa bukatu bitartean, herritarrei informazioa ematen jardungo dute Euskaraldia antolatzen ari diren herri batzordeek, "*belarriprest* eta *ahobizi* guztiek ariketa ahalik eta modu prestatu eta erosoenean" egin dezaten. Hala, herritarrek zalantzarik izanez gero, idatzi dezakete *orio@euskaraldia.eus* edo *aia@euskaraldia.eus* helbideetara edo deitu 688 71 40 19 zenbakira. Horrez gain, batzordeetako kideekin egoteko aukera ere egongo da izen-emate mahaiak jartzen dituztenean.

"Kuadrillan euskaraz egitea nahi nuke"

AMAYA LOIDI 'AHOBIZI'

Zer asmo dituzu Euskaraldirako? *Ahobizi* edo *belarriprest* izango zara aurtengo ariketan?

Aurtengo Euskaraldian ere *ahobizi* izango naiz. Hirugarren aldiz parte hartuko dut egitasmoan, eta lantokian proposatu digute aurten arigune izatea. Beraz, bertan ere emango dut izena. Aurtengoa *ahobizi* izango naizen bigarren urtea izango da. Lehen urtean *belarriprest* izan nintzen, baina orain erosoago sentitzen naiz *ahobizi* rolean.

Zer eman dizu Euskaraldiak?



Euskaraldiak eman dit aukera jende berria ezagutzekoa eta eurekin euskaraz hitz egitekoa. Hemen, herrian, jende askorekin ez nuen harremanik, oso euskaldunak zirelako eta ez nintzelako eroso sentitzen beraiekin nengoenean. Orain,

ordea, eroso sentitzen naiz beraiekin hitz egiten, eta oso gustura nago lortu dudanarekin. Euskaraldiari esker, euskaraz hitz egiteko lotsa galtzeaz gain, lortu dut lehen gaztelaniaz egiten zidaten askok orain niri euskaraz hitz egitea.

Aurten zer erronka jarri diozu zeure buruari?

Euskaraz bizitzea da helburu nagusia, baina bi erronka jarri dizkiot neure buruari. Alde batetik, nire alabarekin beti euskaraz hitz egin nahi dut, eta bestetik, kudrillakoon artean euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea nahi nuke. Gehienok euskaldunak gara, baina gaztelaniaz hitz egiteko ohitura handia dugu, eta hori aldatzea nahi nuke.

"Semearekin euskaraz egitea dut erronka"

SUSANA MARTIN 'AHOBIZI'

Zer asmo dituzu aurtengo Euskaraldirako? Ahobizi edo belarriprest izango zara?

Euskaraldiaren edizio guztietan parte hartu izan dut, eta ni beti ahobizi izan naiz, eta oraingo honetan ere rol hori hartu nahi nuke.

Autengoa ariketa antolatzen den hirugarren urtea izango da. Zer uste duzu eman dizula Euskaraldiak?

Orioko herritarrekin euskaraz hitz egiteko aukera eman dit Euskaraldiak, harremanak euskaraz izatekoa, alegia. Ni lehen ez nintzen ausartzen

denda batera sartu eta erosi nahi nuena euskaraz eskatzera. Lotsa handia ematen zidan. Urte hauetan guztietan, ordea, urrats garrantzitsuak eman ditut bide horretan, eta Orioko dendetan lehen hitza euskaraz egiteko ohitura daukat orain. Donostian, berriz, ez zait horren erraz ateratzen euskaraz hitz egitea, uste dudalako beste modu batera hartzen zaituztela hango dendetan. Normalean, beraien lehen hitza gaztelaniaz izaten da, baina Orion, euskarazko joera handia dago, eta orain



animatzen naiz euskaraz hitz egitera.

Zeure buruari jarri al diozu erronkaren bat aurtengo Euskaraldirako?

Aurtengo Euskaraldirako nire erronka nagusia izango da semearekin euskaraz hitz egitea. Betidanik gaztelaniaz hitz egin dut berarekin, eta ohitura hori aldatu nahi nuke, gure artean euskaraz hitz egin ahal izateko.

Zerbitzuak hobetzeko eta gizarte-politika hobeak izateko **ticketa. BAI.**



TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratua eta solidarioa, etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es TUTURO

"Jendeak lotsa alde batera utzi du"

IRATXE OLIDEN 'BELARRIPREST'



Zer asmo dituzu Euskaraldirako? Ahobizi edo belarriprest izango zara?

Nik uste dut aurreko edizioan bezala, *belarriprest* izango naizela oraingo honetan ere. Nik euskaraz hitz egiteko

ohitura daukat, eta lehen hitza beti egiten dut euskaraz. Horregatik, nahi dut gainontzekoek ere niri euskaraz hitz egitea.

Zergatik erabaki zenuen *belarriprest* izatea?

Euskaraldia aurkeztu zutenean, hitzaldi batean entzun nuen euskaldun zaharrek ez zutela zertan *ahobizi* izan, *belarriprest* izatea ere oso baliagarria zela ekimenarentzat. Horregatik, erabaki nuen rol hori hartzea, gainontzekoek jakin zezaten nirekin lasaitasun osoz euskaraz hitz egin zezaketela.

Zer ekarpen egin du Euskaraldiak?

Euskaraldiari esker, jendeak lotsa alde batera utzi eta hizkuntza ohitura onak bereganatu dituela uste dut. Horrez gain, euskaraz ondo edo gaizki jardun axola gabe, euskaraz hitz egitera animatu ditu herritarrak, epaituak izateko beldurra alde batera utziz.

Zer erronka jarri diozu zeure buruari aurtengo Euskaraldian?

Nik beti euskaraz hitz egiten dut: etxean, kalean, lanean... Ez naiz neu sentitzen beste hizkuntza batean hitz egiten dudanean; gaztelaniaz, esaterako. Nahi nuke euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duten horiek nirekin hitz egiten dutenean eroso sentitzea, nahiz eta zuzen ez hitz egin.

"Euskaraldian nire aletxoak jarri nahi dut"


IÑIGO EXPOSITO 'AHOBIZI'

Zer asmo dituzu Euskaraldirako? Ahobizi edo belarriprest izango zara?

Ni *ahobizi* izango naiz aurtengo Euskaraldian ere, uste dudalako euskaraz bizi naizen momentutik dagokidala *ahobizi* izatea, eta uneoro lehen hitza euskaraz egiten saiatzea. Gainera, nahi nuke gainerakoek ere nirekin euskaraz hitz egiteko joera izatea.

Zer uste duzu eman diola Euskaraldiak gizarteari?

Uste dut egunero euskaraz bizi garen herritarroi baino gehiago eragin diola Euskaraldiak



euskara jakin eta erabiltzen ez dutenei. Euskaraldian parte hartzeak hizkuntza ohituren inguruan hausnartzeko aukera eman die askori, eta oso ariketa interesgarria iruditzen zait egunerokoan izaten diren hainbat jarrera zalantzan

jartzeko aukera eskaintzen dielako; gaztelaniaz hitz egiteko joera zergatik ote duten pentsatzekoa, esaterako. Hala, hobetzeko eta euskaraz bizitzeko nahi horretan urratsak emateko ariketa aproposa da Euskaraldia.

Zer erronka jarri dizkiozu zeure buruari aurtengo Euskaraldian?

Euskara arloan ez diot erronka jakinik jarri neure buruari. Dena dela, orain arte parte-hartze aktiboa izan dut Euskaraldian, eta aurtengoan ere hala izan nahi nuke. Herri mailan antolatzen diren jardueretan parte hartuko dut, Euskaraldiari bultzada emateko eta euskararen aldeko ariketan nire aletxoak jartzeko.

"Beti saiatzen naiz lehen hitza euskaraz egiten"

ZIORTZA BALERDI 'AHOBI'Z

Aurtengo Euskaraldiaren edizioan zer rol hartuko duzu? Belarriprest edo ahobizi izango zara?

Ni *ahobizi* izango naiz, aurreko edizioetan bezala. Rol hori hartzea erabaki nuen euskalduna naizelako, eta gustatuko litzaidakeelako gainontzekoen hizkuntza ohituretan eragitea ere. Ni neu saiatzen nire lehen hitza euskaraz egiten. Denda batean, jende aurrean egiten dut lana, eta nire lehen hitza beti euskaraz izaten da, nahiz eta jakin hartzailak ez dakiela euskaraz. Halako kasuetan, jarraian esandakoa gaztelaniara itzultzen dut badakidalako lehenengoan ez didala ulertu, baina lehen hitza beti euskaraz esaten dut.

Euskaraldiko jarrera aktiboa duzu, beraz, urte osoan zehar.

Bai, saiatzen naiz euskara zabaltzen, ez Aian bizi naizelako, beste tokiren batera joaten naizenean ere bai, lehen hitza euskaraz egiteko ohitura daukat. Jarrera horri eusten saiatzen naiz, baina oso zaila izaten da elkarrizketa euskaraz bideratzea gutxi dakienarekin edo hitz egiteko ohiturarik ez duenarekin; uneren batean gaztelaniara salto egin behar izaten da.

Euskaraldian parte hartu zenuen aurreko edizioetan. Uste duzu Euskaraldia baliagarria izan dela



herritarren hizkuntza ohituretan eragiteko?

Horrelako ariketak behar-beharrezkoak direla esango nuke. Guk etxean beti euskaraz hitz egiten dugu, baina Aia herri euskalduna bada ere, gero eta jende gehiago entzuten dut gaztelaniaz. Askotan kanpotik etorri direnak jartzen ditugu aitzakia gisa, baina euskaldun zaharrak jarduten gara geure artean gaztelaniaz. Beraz, uste dut mota horretako ekimenak garrantzitsuak direla jendeari

"HITZ ASKO GALTZEN ARI DIRA ETA UMEEK GERO ETA GUTXIAGO DARABILTE HITANOA"

hizkuntza ohituren inguruan zer pentsatua emateko. Izan ere, askotan inertzia jarduten dugu gaztelaniaz, horrek gure hizkuntzan zer eragin duen erreparatu gabe. Taldeko batek, euskaraz jakin arren, gaztelaniaz hitz egiteko ohitura badu, gaztelaniara jotzen dugu sarri euskaldunok gure artean jarduteko, eta horrek gure hizkuntzan kaltea eragiten du.

Zentzu horretan, aldaketarik antzeman al duzu?

Bai, kezkatuta nago gaiarekin. Hitz asko galtzen ari direla iruditzen zait: baserri munduko hitzak edo lehengo esaera zaharrak. Ohartzen naiz umeek gero eta gutxiago erabiltzen dutela hitanoa, gure garaian hika jarduten genuenean geure artean. Niri asko gustatzen zait, eta konfiantza giroa ere duten zenbait edukazio falta ere iruditzen omen zaie. Pena da.

Aurtengo Euskaraldirako erronkarik jarri al diozu zeure buruari?

Egunerokotasunean euskaraz bizi nahi dut eta euskara erabili nahi dut, nahiz eta nire esku ez egon beti. Konturatuta nago, esaterako, dendan besteei utzi behar dizkiedan ohartxoak gaztelaniaz idazten hasia naizela, aurrekoak niri hala utzi didalako; Whatsapp taldean norbaitek mezua erdaraz uzten badu, nik euskaraz erantzun nahi dut. Jarrera horiek aldatu behar ditut. Hori da nire erronka, nire esku dagoen heinean euskararen aldeko hautua egitea, eta gainontzekoei horretan ari naizela jakinaraztea. ■

Bi mundu bira: Elkanorenak 500 urte, Julio Villarrenak 50



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIA: MARTIN PERONA, KUTXA

FOTOTEKA, KARKARA

Gizakiak ohitura du zerbait inportantea gertatu denetik urte batzuetara, igarotako urteen kopurua borobila denean, iraganeko gertaera hura gogora ekartzeko.

Urte kopuru borobila da 50, urteurrenetarako. Ospatzekoa. Horixe egiten dute horrenbeste urte ezkondata irauten duten bikoteek: urrezko ezteiak ospatu. Eta 500 pasatu direnean?

Aurtengo urtea aberatsa da efemerideetan: Orion pilota txapelketaren 50. edizioa jokatu dute aurtengo sanpedroetan. Oriok Kontxako bandera irabazi zuen duela 50 urte, 1972an; hirugarrena zuen segidan. Urte hartan, 1972an, jokatu zen lehenengo aldiz Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia. Aurtengo uztailaren 24an 50. edizioa izan da, 2.608 igerilarik egin dute proba, eta omenaldia egin zitzaion 25 aldiz baino gehiagotan parte hartu dutenei. Haien artean zen Jesus Mari Garmendia *Xarpas* oriotarra.

Orain 50 urte, mundu mailan ere izan zen gertaera bat urtea markatu zuena. 1972ko irailaren 5ean Municheko Joko Olinpikoetan komando palestinar batek eraso egin zien atleta israeldarrei: bi hil eta beste bederatzi bahitu egin zituen, eta ehun preso

palestinar askatzeko eskatu. Sarraski bat piztu zen, bertan hil ziren bederatzi bahitu israeldarrak, polizia aleman bat eta zortzi komando kideetako bost. Jokoez, hala ere, normaltasun osoz jarraitu zuten.

Efemeride eztabaidatuak

Aurtengo efemerideek orain dela 500 urteko gertaera historikoetara ere bagaramatzate. Uztailean 500 urte bete ziren 1522an Gaztelako tropek Nafarroako Erresumako azken erresistenteak Amaiurreko gazteluan garaitu zituztenetik, Nafarroak bere independentzia eta burujabetza politikoa galdu zituenetik.

Irailaren 6an 500 urte bete ziren Juan Sebastian Elkano getariarrak *Victoria* ontzian munduari bira osoa eman zionetik, hiru urte lehenago mendebalderantz abiatu eta ozeanoak zeharkatuta, ekialdetik abialekura itzuli zenetik; era horretan, mundu-bira gauzatu zuen lehenengo

pertsona bihurtuz. *Primus Circumdedit me* (bira eman didan lehena). Jaioterriak handikiro ospatu zuen 500 urte lehenagoko lehorreratzea, aurreneko aldiz ospatu zuenetik (1922an) 100 urtera.

Amaiur eta Getaria. Bi herri, bi gertaera historiko. Bien inguruan eztabaidak izan dira, baina, batez ere, Elkanoren mundu biraren oroimenari dagokionez. Ospakizunak ekarri dituen tira-birez gain, mundu bira burutu zuen *Victoria* itsasontzia non egina ote zen ere ezbaian izan da. Batzuek diote Zarautzen eraikia izan zela, eta irailaren 6an horixe ospatu zuten Zarautzen; baina historialari aditu batzuek diote hori egiaztatzen duen dokumenturik ez dagoela bakarra ere eta hipotesia defendaezina dela.

Getariako ospakizunaren inguruan gauza asko esan dira. Balentria haren historikotasunean balio handikoak gertatu dira 2016an Aiako Laurgaingo dorretxean Elkanoren 1522ko agiri batzuk aurkitu izana, frogagiri moduan.

Orain 500 urteko gertakariak hitzaldi, artikulua eta liburu asko plazaratu dira. Gehienek laudatu eta goraipatu egin dute Elkanoren figura historikoa, eta mundu biraren zailtasuna, balioa eta garrantzia azaldu. Xabi Solanok kantua bat sortu

**AURTENGO
EFEMERIDEEN DUELA
500 URTEKO
GERTAERETARA
GARAMATZATE**




1942, 1952, 1972 eta 1992an bezala, **2022**an ere Oriok irabazi du Kontxako bandera. 1942an 12 neskak eskaini zieten dantza mutilei; **2022**an, 2 mutilek aurrekua neska arraunlariei, garaipenaren ospakizun bikainean. Bietan ondo. Bibaka!

dio Elkanoren bidaiari: *Bi mundu* kultur aniztasunaren alde. Uztailean aurkeztu zuen lehen aldiz Andatzako plazan. Lana kantariaren, Elcano Fundazioaren eta Etxepare Institutuaren elkarlanaren emaitza da, Albaola Itsas Kultur Faktoriak plazaratua: "Euskal Herritik abiatu, ametsak gauzatzerantz joan (...), bizitza da mundu bira". Joseba Sarrionandia euskal idazle

ezagunak *Munduari bira eman zion ontzia* liburua plazaratu du. Eta Daniel Zulaika zarauztarrak beste hau: *Elkano, los vascos y la primera vuelta al mundo*.

Elkanoren mundu bira ospatzearen alde eta kontra
Elkanoren mundu bira ospatzearen kontra agertu da Axier Lopez *Argia* aldizkariako kazetaria, liburu baten bidez:

Gure heroiak, Elkanoren eta Euskal Herriko kolonialisten historia bat. Halaxe dio atzeko azalean: "Ez zu eta ez ni ez gara kolonialista, konkistatzaile, ezta esklabista ere. Inork ez ditu bere egiten euskal herritar askok (ere) mende luzez egindako astakeriak. Ordukoaz guk ez dugu ardurarik. Baina iraganean gertatutakoa hemen eta orain ospatzen eta zuritzen dugunean, orduan bai, ardura



Xabier Alberdi historialariak Elkanoren mundu biraz Zarautzen emandako hitzaldia.

gurea da". Elkanoren figura historikoaren aldekoek diote Elkano ez zela inoiz nahastuta ibili astakeria haietan.

Inperioek historian zehar jokatu duten konkistatzaile, kolonizatzaile eta esklabista rola dela eta, Frantzisko aita santuak aurtengo uztailean barkamena eskatu zien Kanadako herri indigenei, hara egindako bisitan. Fenomeno historikoen aurrean egon

daitezkeen begiratu desberdinetan, arriskutsua da begi bakarrarekin begiratzea eta, horren ondorioz, fenomeno poliedriko bati alde bakarra ikustea, besteak ezkutuan geratuta. Agian horixe gertatu da Elkanoren kasuan ere. Euskaldunak ere ibili ziren Ameriketako lurren konkistan; baina hori horrela izanda, nork uka dezake

Elkanok duela 500 urte burututako itsas bira haren zailtasuna, balioa eta garrantzia?

Literaturaren bidez, Kepa Iribar idazle getariarra saiatu da nobela bateko (72 ordu) protagonisten ahotik mundu birari emandako bi begiratuak azaltzen, nobelako pasarte batera eztabaida ideologikoa ekarrita. Protagonista batek haxe dio (47. or.): "Elkanorena itsas abentura ikaragarria izan zen, ezin dugu gure bizimodu eta pentsaeratik gizon haiek egin zutena bere osotasunean ulertu. Onerako eta txarrerako, izan zuten jokabidea, hartutako erabakiak, ezin dira 500 urte geroago gure ikuspegitik epaitu". Eta besteak, berriz: "Bidaia inperialista bat izan zen, mundua horrelakoxea zen garai hartan, baina baliatu behar dugu ospakizunak izango duen oihartzuna, Elkanoren figura ezagunago egiteko munduan eta egin zuten bidaia azaltzeko, egin zituzten gauza onak eta txarrak zabaltzeko".

Ospakizunen antolatzaileei aitortu behar zaie urteurreneko lelo nagusietako bat euskaratik eta euskaraz egoki sortua izan dela: "Bost mende, bost kontinente, bostekoa munduari", bost mendeko historiari eta bost kontinenteei bostekoa luzatu diete Getariatik. Ospakizunari bukaera Getariako alkateak Jon Maia bertsolariaren hitz



Aurtengo irailaren 6an Getariako herritarrek herriko kaleetan egin zuten Elkanoren 1522ko lehorreratzaren antzezpena, 500. urteurrenean.



Julio Villar Gurrutxaga, *Mistral* belaontzian, 1972an, mundu bira burututa.



Julio, gaur egun ere munduan ibiltari nekaezin, orain lehorrean.

hauekin eman zion: "Egunotan bi hitz zabaldu dira Getariatik Euskal Herrira: esperantza eta Elkano. Elkano iraganetik dator, esperantza etorkizunari dagokio. Biak portu beretik, izan gaitezen gure historiaren lemazain, mundu berri baten bila. Beste mundu bat posible da".

Julio Villar donostiarraren mundu bira

Aurten bada beste efemeride bat, orain arte apenas haizatu dena, inor gutxi aipatu duena, eta oroimena merezi duena. Orain 50 urte, 1972ko uztaillean, Julio Villar Gurrutxaga donostiarra (1943) Lekeitiora iritsi zen *Mistral* izeneko belaontzian, lau urte eta erdi lehenago Bartzelonatik mendebalderantz abiatu eta berak bakar-bakarrak 38.000 itsas milia eginda, munduari bira osoa emanda. Gero liburu bat idatzi zuen, *Eh Petrel! Cuaderno de un navegante solitario*, prosaz, bidaiaren zehar izandako sententzioak eta sentimenduak modu poetiko ederrean azalduz.

Julio Garate du laugarren abizena. Haren amona, amaren

ama, Orioko Dike Zahar kale-baserrian jaioa zen, Garate kastakoa. Joxe eta Kaxilda Garateren lehengusu propioa da, eta haien bizitasuna du.

Ibon Gaztañazpi oriotarrak euskaratu egin du Villarren liburu ederra. Azaroaren 10ean aurkeztuko du lana Pasaiaiko Albaolan. Ibonen hitzak dira hauek: "Juliok norbaitek utzitako zazpi metro luze zen belaontzian egin zuen bidaia, motorrik gabe, argindarrak gabe, GPS edo pilotu automatikorik gabe, zunda eta radarrik gabe... Irratia zuen aparailu elektroniko bakarra. Juliorenak, teknologiaren ikuspegitik, antza handiagoa zuen Elkanoren bidaiarena, orain Orioko kirol portuko ontzi gehienek egin lezaketen bidaiarena baino. Itsasoan kokatzeko sestantea erabiltzen zuen, itsas karten bidezko nabigazioa zen harena. Eta gainera, nabigatzen jakin gabe itsasoratu zen Villar".

Orain urte batzuk Tolosan antzezlan bat aurkeztu zuten, Julioren mundu bira azalduz. Saioaren osteko solasaldian hitz hauek erabili zituzten Villar aurkezteko: "Mendizale, bidaiari, abenturazale, itsasgizon, ibiltari,



Ibon Gaztañazpik euskaratu duen Julioren liburu bikaina.

ameslari... Dirua besterik ez dutelako mundua pobreez beteta dagoen garaian, Juliok ez dauka ia ezer, diruari ezetz esaten jakin zuelako, asmatu zuelako, ausartu zelako. Eta, horregatik, ia ezerk ere ez dauka Julio. Eta horregatik da horren aberatsa, libre delako, ibiltzeko, bidaiatzeko... Bizitzeko. Izarrak dauzka, ilargia, eguzkia, haizea, dirurik kostatu ez baina baliorik handiena dutenak. Eta irribarre ia etengabea, betikoa, bihotzaren ispilu, zorionaren adierazle". ■■■



Historiak jantzi du horma

Orioren historiako elementu esanguratsuak biltzen dituen murala egin du Udane Juaristi artista azkoitiarrak kanpinaren kanpoaldeko horman. Argazki zaharrak eta ilustrazioak izan ditu oinarri, eta zuri-beltzean margotutako figura errealistak kolore blokeekin tartekatu ditu. Olaia Etxezarretaren laguntza izan du.

Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Joxemari Olasagasti eta Aitziber Arzallus**.

UDANE JUARISTI

Gaztea izanagatik, dagoeneko ibilbide oparoa du Udane Juaristik (Azkoitia, 1985). Orion ez ezik, eskualdeko beste hainbat herritan ere ikus daitezke hark egindako muralak; esaterako, Azkoitian, Azpeitian eta Getarian. Eta eskualdeko eta Euskal Herriko mugetatik kanpora ere hainbat tokitan utzia du bere arrastoa; besteren artean, Madrilan (Espainia), Oviedon (Espainia), Santanderren (Espainia), Bartzelonan (Katalunia), Carballon (Galizia), Ludwigshafen am Rheinen (Alemania) eta Rabaten (Maroko).



GARAI BATEKO TXU-TXU TRENA

Gaur egun, uda partean, txu-txu trena ibili ohi da oriotarrak eta bisitariak herrigunetik hondartzara eta hondartzatik herrigunera eramaten, baina hori ez da beti horrela izan. Garai batean, gurdidun behor bat ibiltzen zuten horretan. Murala bukatzeaz jakin zuen Juaristik istorio horren berri, eta polita irudituta, hormara eramatea erabaki zuen. "Mural honen helburuetako bat da herrigunea eta hondartza ingurua lotzea, eta uste dut irudi honek oso ondo adierazten duela ideia hori".



MANTEROLA AITA-ALABAK

Murala egiten jardun den asteetan, herrigunetik hondartzara eta hondartzatik herrigunera bidean pasatzen ziren herritarrekin hizketaldi politak izan ditu Juaristik, eta, horiei esker, horman margotu dituen pertsonaien inguruko informazioa biltzen joan da. "Gizonezkoa Julian Manterola dela esan didate, eta jatorrizko argazkian beste gizon batekin ageri zen, aitarekin ziur asko. Zer den kasualitatea, pixka bat ezkerrerrago sarea josten ageri den emakumea Julianen alaba omen da, Purita, eta nik hori jakin gabe aukeratu argazkiak".



ESKABETXERAK

Kanpineko horman murala egiteko eskaerari baiezkoa eman zionean, Orioko Udalak hainbat argazki zahar utzi zizkion Juaristiri, eta muraleko hainbat elementu haietan oinarrituta sortu ditu azkoitiarrak. Esku artean izan zituen argazkietatik atentzia eman zionetako bat eskabetxerak azaltzen ziren bat izan zen, eta argazki hartatik bi emakume aukeratu zituen horman margotzeko: "Badakit eskubikoak Maria Carvallo izena zuela eta eskabetxera ez ezik, emagina ere izan zela. Ezkerrekoarekin, berriz, zalantzak izan ditu jendeak, agian argazkikoaren berdin-berdina egin ez dudalako, baina, esan didatenez, Katxinako familiakoa izan behar du".



HERRIA

Horma irudia sortzerakoan, batez ere, argazki zaharrak, gaur egungo argazkiak eta Arkaitz Badiola ilustratzailearen liburu bat izan ditu inspirazio iturri Juaristik. Goiko irudia, zehazki, Badiolaren ilustrazio batean oinarrituta egin du. "Haren ilustrazioaren antza badu, baina, gero, neure ukitua eman diot", esan du artistak. Herriko hainbat eraikin ez ezik, errioa eta baporeak ere ageri dira bertan.



MUTIOZABAL ONTZIOLA

Arkaitz Badiolaren ilustrazio liburuan oinarritutako irudia da honakoa ere, eta Mutiozabal ontziola ageri da bertan. Hain zuzen ere, ontziola martxan zegoen garaikoa da irudia, eta erriorearen beste aldean herria azaltzen da. Ontziola beritu eta hango ateak herriari zabaldu dituzten uneotan, pare-parera dator irudia. Horrez gain, horma irudian bada Mutiozabali erreferentzia egiten dion beste margo bat ere.

ARRAUNA

Nola ez, arraunak behar zuen lekua horrelako mural batean, eta artista azkoitiarrak nesken lehen taldearen argazki bat hormaratu du, azken denboraldiko garaipenetako bat ospatzen. Besoa jasota ageri den arraunlaria June Aranbarri ondarrutarra da, eta KARKARAK argitaratutako argazki batean oinarrituta sortu du irudia. Behealdean kolore bloke horia ezarri dio, arraun taldearen kolorea delako.

Garai bateko gizonen traineru bat eta arraun pala batzuk ere jarri ditu muralean. ■■■



Ikasteko sekula ez baita berandu

Duela hamabost urte sortu zuten Orioko Esperientzia Eskola. Dozenaka zenbatu daitezke ikasle izan diren herritarrek, eta dozenaka, egin dituzten jarduerak eta landu dituzten gaiak. Pandemiak, ordea, gogor erasan die, eta iaz sekula baino jende gutxiagok parte hartu zuen asteroko saioetan. Animatzeko deia egin dute.

Testua eta argazkiak:
Aitziber Arzallus.

Hamabost edo hamasei urte dira Orioko Esperientzia Eskola martxan jarri zutela. "2007an hasiko ginen", zehaztu du Mertxe Bengoetxeak, eskolan denbora gehien daraman kideak, bere ordenagailuan gordeta dituen dokumentu zaharrenei erreferentzia eginez. Geroztik, urtez urte, dozenaka herritarrek parte hartu dute. "Urteren batean 33 lagun izatera ere iritsi gara", esan du Heliadora Sanchez elkartearen egungo presidenteak. Pandemiak, baina, gogor erasan die. "Dena oso ondo zihoan, eta hogeitik gora lagun genbiltzan, pandemia iritsi zenera arte. Urtebetez geldirik egon ostean, berriz martxan hasi ginen, baina jende gutxi izena eman zuen". Normaltzat jo du, "jendeak beldurra barruraino sartuta zeukalako". Iazko ikasturtean dozena bat lagun-edo hasi ziren. "Baina horren jende gutxi ibiltzean, norbait falta bada, asko antzematen da". Bati ebakuntza egin ziotela, besteak istripu bat izan zuela... "Zazpi lagun joaten ginen aldiak ere izan genituen, eta gutxi da hori. Pena da hizlariak eta irakasleak ekartzen jardutea, ondo ordainduta gainera, horren jende gutxi rentzat. Horregatik, jendeari animatzeko eskatu nahi diogu, izena eman dezatela eta gutxienez probatzera etor daitezela, benetan merezi duelako".

Astean behin elkartu ohi dira, bi orduz, Ikastolan, era guztietako gaiak lantzeko eta jarduerak egiteko. Bengoetxeak koadernoko orri bat atera du poltsatik, zerrenda luze-luze batekin, urteotan zer egin duten azaltzeko. Irakurtzen hasi da: "Luis Ortegararekin historia landu izan dugu; Luis Domingorekin, umorea eta literatura; Emma Okamikarekin,



garuna sasoian izateko jarduerak eta *mindfulness* egin dugu; Jesus Maria Mujikarekin gaur egungo gizarteaz eta etorkizunekoaz hausnartu dugu; Jesus Chuecarekin fisika landu dugu; Arkaitz Agirrerekin testamentuaz, bikoteen banaketaz eta beste hainbat gaitaz jardun gara; Nagore Vazquezekin, enpatia terapeutikoaz; Libe Garmendiarekin elikadura osasuntsuari buruzko ikastaroa egin dugu; Alejandro Arellanorekin, *chi kung*; Karmele Garmendiarekin astrologia landu dugu; Bharat Martinekin, umorea eta hazkunde pertsonala; Sonia Fernandezekin, musika; Arantxa Satrustegirekin, lorez eta landareez jardun dugu; Itziar Olasagastirekin, dietetikaz; Lori Thompsonarekin, zainketa aringarriez; Diego Fernandezekin, osasunaren eta emozioen kudeaketaz... Normalean, aditu bakoitzarekin pare bat saio izaten dira, baina egin ditugu hiru hilabeteko ikastaroak ere; esate baterako, joan den ikasturtean, hiru hilabetez egin genuen *mindfulness*".

Egun bereziak

Asteroko saioez gain, ikasturtean zehar egutegian gorritz margotutako egunak ere badituztela esan du Sanchezek, eta "berezienak" herriko bi eskoletako ikasleekin partekatzen dituztenak izaten direla. "Urtero, ikasturtearen bukaera aldera, belaunaldien arteko hartu-emaneko egunak egiten ditugu, bai Ikastolako ikasleekin, bai Zaraguetakoekin. Oso aberasgarriak izaten dira, bai beraientzat eta baita guretzat ere. Dakizkigun gauzak irakasten dizkiegu guk, eta dakizkitenak irakasten dizkigute beraiek. Irakatsi diegu kuzinatzen, arropa zabaltzen eta lisatzen, josten, eskulanak egiten... Eta beraiek guri, adibidez, eskuko telefonoak erabiltzen. Urtean bi edo hiru egun izaten dira, eta zoragarriak izaten dira". Egun horietaz aparte, beste batzuk ere partekatzen dituzte herriko ikasleekin. Esate baterako, Euskararen Egunean Ikastolara joaten dira taloak egiten irakastera, eta Santo Tomas egunean gauza bera egiten dute, baina Zaraguetan.

Argazkietan argi ikus daitekeen moduan, Esperientzia Eskolan parte hartzen duten ia denak emakumeak dira. "Gizonak ere izan ditugu, baina, denera, lau bat, ez gehiago", zehaztu du Inaxi Esnalek. Hori



Ezkerreko eta eskuineko argazkietan, ikasturte berriari ekiteko prest dagoen Esperientzia Eskolako ikasle taldea.

Erdiko argazkian, Heliodora Sanchez, Esperientzia Eskolako egungo presidentea.



zergatik ote den beraiei galdetu beharko litzaiekeela esan du, baina jarduera askotan gertatzen dela gauza bera, gizonak falta izaten direla. "Emakumeak barra-barra, eta gizonak esku bateko hatzekin kontatzeko lain. Gure artean aspertu egingo dira edo...". Sanchezek hartu du berriz hitza: "Agian izango da beste leku batzuetan gusturago sentitzen direlako. Adibidez, Zaharren Babeslekuan gizon asko ibiltzen da eta han antolatzen dituzten jardueretan ere parte hartzen dute, musean-eta, baina, egia esan, gainontzean, herri honetan ez da

adinekoentzat gauza gehiegi antolatzen. Horregatik uste dut Esperientzia Eskola aukera paregabea dela beste era bateko interesak dituzten horientzat. Izan ere, gu erabat irekita gaude, edozein gai lantzeko prest, oraindik gurean izan ez diren hizlariak ekartzeko prest, gauza berriak probatzeko eta ikasteko sekula ez baita berandu". Jende berriak ideia berriak ekarriko lituzkeela esan du eta, hain zuzen, horixe dela nahi dutena.

Aurpegi berri batzuk bai

Oraindik ikasturtea hasi ez duten arren, bi edo hiru kide berri batu zaizkie dagoeneko, eta pozik daude horregatik. Fatima Uranga da horietako bat. Beti izan du gogoia Esperientzia Eskolan izena emateko, baina orain arte ezin izan du, lanagatik. "Orain, ordea, badaukat niretzako denbora, badaukat gauzekiko interesa eta jendea ezagutzeko eta gauzak partekatzeko gogoia, eta horregatik erabaki dut izena ematea". Mikel Munduate da beste bat. "KARKARA irakurri nuen esperientzia eskolak arriskuan zeudela jende faltagatik, eta behin galtzen dena atzera berriz berreskuratzea zaila izaten denez, izena ematea erabaki genuen emazteak eta biok. Urtebetez proba egingo dugu, eta zer nolako saioak diren ikusi; laguntze aldera, eta interesgarria iruditzen zaigulako ere bai".

Urteak daramatzaten kideek ez direla damutuko ziurtatu diete berriei; tartean, Bengoetxeak. "Begara niri, behin izena eman nuen, eta hamabost edo hamasei urte geroago, hemen jarraitzen dut oraindik, eta hala jarraituko dut ahal dudan bitartean". Azkenean, joateko ohitura hartzen dutenentzat, astean behineko saio bat baino gehiago delako Esperientzia Eskola. "Lagunarte polita daukagu geure artean. Norbaiten urtebetetzea denean, kafea hartzera joan ohi gara; bazkariak egiten ditugu; irteeraren bat ere bai tarteka... Jende berria ezagutzeko aukera ematen dute saioek, aktibo mantentzekoa, gauza interesgarriak egitekoa, eta horrelako aukerei ezin zaie pasatzen utzi".

Esperientzia Eskolan izena eman nahi dutenek edo argibide gehiago behar dituztenek, telefono zenbaki hauetara dei dezakete: 687 40 67 53 (Heliodora) eta 675 71 33 82 (Mertxe). Doakoa da izena ematea.

**HELIODORA SANCHEZ:
"PENA DA HIZLARIAK
EKARTZEN JARDUTEA
HORREN JENDE
GUTXIRENTZAT"**

**MERTXE BENGOTXEA:
"GAI INTERESGARRIAK
LANTZEN DITUGU ETA,
GAINERA, LAGUNARTE
EDERREAN"**

"Garrantzitsua da egiten denarekin gozatzea"

TESTUA: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Orioko Karela kiroldegiko entrenatzaile Eider Laskibarrek gomendio batzuk eman dizkie, ikasturte berriarekin batera, kirola edo ariketa fisikoa egiten hasi nahi dutenei.

Ikasturtea hastearekin batera, herritar askok ariketa fisikoa egitea jarri dute helburu. Zer gomendatuko zenieke pertsona horiei?

Lehenik eta behin, garrantzitsua da gustukoa den ariketaren bat egiten hastea. Batzuek ez dute jakiten zer motatako jarduera fisikoa gustatzen zaien, eta horiei gomendatuko nieke pare bat astetan jarduera desberdinak probatzea, zer atsegin duten eta ondo zerk sentiarazten dien jakiteko. Bestetik, garrantzitsua da norbere buruarekin konpromisoa hartzea, konstantea izatea eta helburu errazak ezartzea. Inportantea da, gainera, pixkanaka hastea. Gure helburua sasoian jartzea edo izerdi pixka bat botatzea baldin bada, ariketa arina eginez hasiko ginateke eta, pixkanaka, intentsitatea handitzen joan.

Batzuetan emaitzak azkarregi lortu nahi izaten dira, eta gehiegi entrenatzeko arriskua egoten da. Minik ez hartzeko zer hartu behar da kontuan?

Behar baino saio gehiago egiteagatik ez ditugu emaitza hobeak lortuko. Ez da emaitzarekin eta hori lortzeko



entrenamenduekin itsutu behar; pazientzia eduki behar da, eta ulertu, atsedean hartzea entrenamenduaren parte dela. Entrenatzen hastearekin batera, gorputzari entzun egin behar zaio, eta elikadura osasuntsua izan. Hasteko, esaterako, egokia da astean hiru aldiz entrenatzea. Hala ere, faktore asko hartu behar dira kontuan

"BEHAR BAINO SAIO GEHIAGO EGITEAGATIK EZ DITUGU EMAITZA HOBEAK LORTUKO"

entrenamenduak definitzerakoan: esaterako, egiten dugun lan mota, edo daukagun denbora libre.

Ez da erraza ohitura berria bereganatzea, eta zenbaitetan, etsi egiten da. Nola mantendu daiteke motibazioa?

Beti presente eduki behar da ariketa fisikoa osasuna hobetzeko egiten dugula, eta garrantzitsua da egiten denarekin gozatzea. Izan ere, oso zaila da gustatzen ez den jarduera bat denbora luzez egitea. Horrez gain, motibazioari eusteko ona da talde batean sartzea eta taldearekin konpromisoa hartzea. Bestetik, musikak ere izan ohi du eragina; musikarekin egiten den ariketa fisikoa motibagarriagoa dela iruditzen zait niri, bakarka zein taldean entrenatu.


Ariketa fisikoa egiteak zer onura dakartza?

Fisikoki indarra, malgutasuna, erresistentzia eta gorputzaren alineazioa hobetzen laguntzen du, eta nahi gabe elikaduran arreta jartzen dugu, entrenatzen hasten garenean. Horrez gain, psikologikoki onura handiak dakartza: egunerokoaz deskonektatzen laguntzen digu, estresa kanporatzen... Hobeto atsedean hartzen dugu kirola egin ondoren, eta gogo aldarlean ere eragin positiboa du. Azken finean, ondo sentiarazten gaitu ariketa fisikoa egiteak. ■



GAU BELTZA

Apaindu eta margotu.



Labirintoa

Gure Maripurtzil eta Pelloziri santa eskean doaz, baina aukeran, nahiago dute gutizia gozoa jaso, gartzaina baino. Zein ote da goxokietaraino eramango dituen bidea? Aurki ezazu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA						
						
A	B	C	D	E	F	G
						
H	I	J	K	L	M	N
						
O	P	Q	R	S	T	U
						
V	W	X	Y	Z	.	!

Ispilutxo, ispilutxo...

ET, ET, ET, HORI GABONETAKO ABESTIA DA, ETA HALU GAU BELTZA DA!

GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
GAZTAINAK ERRE ARTEAN,
TXIPLI-TXAPLA PUN...

ETA GOXOKIRIK
EZ AL DA
BATERE?

KAKA!
EZ DUT
PUTZIK
IKUSTEN




Gau Beltzak duen magiaren eragina izango da agian, baina gure laguntxoak ez dira ongi isplatzen. Aurki itzazu aldeak. Bederatzi dira guztira.

Zer esaten ari ote da neskatoa? Jarri marrazkitxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia alboko hizki-marrazki alfabetoari begiratzuz, eta berehala jakingo duzu.



Zer ote?

Hildakoak gogoratzeko pizten den gauza honek zer izen du? Jarri marrazkitxo bakoitzari dagokion izena, hizkiz hizki, alboko lauki zurietan. Gero, lauki gorrietan gelditu diren letrak irakurri, goitik behera.



Mezu gordea



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Tel. 690 27 28 42.

Pisua partekatzeko prest nago, alokairu kontratua- rekin. Seriotasuna eskatzen dut. Tel. 666 62 22 51.

LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Tel. 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haur- rak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbita- sunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jarzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Haurrak edo adine- ko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo ta- bernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Tel. 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan

Iragarkietarako bakoia. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

eta baita prestutasun osoa ere. Tel. 695 37 82 60 Estrella Reyes.

Emakume arduratsua naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak egiteko prest nago, baita adinekoak zaintzeko ere, egunez zein gauez, barneko zein kanpoko lan- gile bezala. Jatetxe batean ere lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia dut eta horretarako beharrezko titulua dut. Tel. 666 62 22 51.

Adineko pertsonak zaintzeko prest dagoen emakumea naiz, eta berehala lanean hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa dut, eta sei urteko esperientzia zaintza lanetan: jaten ematen, medikazioak, higie- nea, postura eta fardel aldaketa.... Orion bizi naiz eta paper guztiak legeztatuta ditut. Tel. 631 44 12 51. Neriz.

Orion bizi den emakumea naiz eta adinekoak zaintzen lan egin nahi nuke. Titulu soziosanitarioa dut, eta eskarmentu handia du adinekoak eta mendekotasu- na duten pertsonak zaintzen. Paper guztiak legeztatu- ta ditut eta berehala hasi naiteke lanean; prestu- tasun osoa dut. Tel. 631 01 72 28. Nerlin.

Emakumea orduka etxeko lanak egiteko edo adine- koak zaintzeko prest. Esperientzia handia dut zeregin horietan eta titulu soziosanitarioa daukat. Aurretik egindako lanen erreferentzia onak ditut. Tel. 612 57 03 45

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte asegurua ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorrek salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokai- ruan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	08:30 eta 20:57	02:16 eta 14:42	☉
2	09:26 eta 22:03	03:06 eta 15:41	☾
3	10:45 eta 23:43	04:12 eta 17:02	☾
4	12:25	05:46 eta 18:42	☾
5	01:28 eta 13:50	07:23 eta 20:06	☾
6	02:39 eta 14:53	08:32 eta 21:06	☾
7	03:31 eta 15:43	09:24 eta 21:53	☾
8	04:14 eta 16:26	10:08 eta 22:34	☾
9	04:52 eta 17:06	10:48 eta 23:11	☾
10	05:27 eta 17:43	11:26 eta 23:47	☾
11	06:00 eta 18:18	12:03	☾
12	06:32 eta 18:52	00:21 eta 12:39	☾
13	07:04 eta 19:26	00:55 eta 13:16	☾
14	07:37 eta 20:02	01:29 eta 13:54	☾
15	08:12 eta 20:41	02:04 eta 14:35	☾
16	08:55 eta 21:32	02:44 eta 15:24	☾
17	09:56 eta 22:51	03:34 eta 16:34	☾
18	11:28	04:53 eta 18:10	☾
19	00:35 eta 13:03	06:34 eta 19:34	☾
20	01:52 eta 14:08	07:50 eta 20:30	☾
21	02:42 eta 14:54	08:40 eta 21:11	☾
22	03:20 eta 15:32	09:18 eta 21:45	☾
23	03:54 eta 16:07	09:53 eta 22:17	☾
24	04:27 eta 16:40	10:26 eta 22:49	☾
25	04:59 eta 17:15	11:00 eta 23:22	☾
26	05:33 eta 17:50	11:36 eta 23:57	☾
27	06:08 eta 18:29	12:14	☾
28	06:47 eta 19:10	00:34 eta 12:55	☾
29	07:29 eta 19:57	01:15 eta 13:41	☾
30	07:19 eta 19:53	01:01 eta 13:34	☾
31	08:22 eta 21:08	01:57 eta 14:40	☾

FARMAZIAK-HILABETEA

ZARAUTZ

15, 16, 20 eta 27. ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98

5 eta 11. ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83

3, 18, 22, 23 eta 28. GALLO: Zigordia kalea, 12 / 943-13 40 19

6, 12 eta 24. GAMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19

10, 29 eta 30. IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70

7, 8, 9, 14, 21 eta 26. ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70

1, 2, 4, 13, 19, 25 eta 31. LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 /

943-13 38 14

17. REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

AGENDA

AIA

URRIAK 9, IGANDEA

Herri kirol jaialdia: Gipuzkoako txapelketak jokatuko dituzte gizonak lokotx biltzen, emakumeek harri txikiak jasotzen eta emakumeek aizkoran.

Probalekuan, 12:00etan.

URRIAK 29, LARUNBATA

Kirola: Aiako II. Mendi Duatloia. *Andatzako plazan, 15:30ean.*

ORIO

URRIAK 7, OSTIRALA

Zimena: *Urak aske* dokumentalaren emanaldia eta solasaldia Arturo Elosegirekin.

Kultur etxean, 18:30ean.

URRIAK 14, OSTEGUNA

Argazki emanaldia: Ander Gillenearen eskutik, DBH4. mailako ikasleentzat. Bakeola fundazioak antolatutako ekitaldia.

Kultur etxean, 12:30ean.

URRIAK 17, ASTEARTEA

Ipun kontaketa saioa: Miriam Mendoza kontalariaren eskutik.

Kultur etxean, 17:30ean.

URRIAK 22, LARUNBATA

Antzerkia: ATX Teatroaren *Oihana* antzezlan.

Kultur etxean, 19:30ean.

URRIAK 25, ASTEARTEA

Zineforuma: *Suaminetik bakera* filma eta Iñaki Peñarekin solasaldia. Bakeola fundazioak antolatutako ekitaldia.

Kultur etxean, 19:00etan.



URRIAK 29, LARUNBATA

Musika: Joseba Tapia musikari lasartearraren kontzertua. Emanaldirako sarrerak aurki jarriko dituzte salgai.

20:00etan, Herriko plazan.

Puntua jarrita

Bertsolaria: Karmele Oliden.

Doinua: *Bertso bat botaiozu zeure buruari.*

1

**Karmengo Ama Birjina
arrantzaleen babes,**

emazte, saregile
guztien omenez.
Estropa, eskubaloi
hainbat aipamenez,
denon gustoko da ta
hainbat gorespenez.

2

Bisigu festa eta
jendea ugari,
Tomatea, antxoa ta
bero itogarri.
Festa antolatuta
herria egarri,
ingurukoentzako
jai erakargarri.

3

Eskubaloia hondartzan
a zer erakusketa,
irabazi dituzte
hainbat txapelketa.
Antolakuntza ona,
Ai! Zenbat lanketa!
Orio Eragin dago
ilusioz beteta.

Hurrengo bertsolaria:
Amaia Iribar.

Hasi Bertsoan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Karmele Olideneri jarri dio puntua Eli Bellok: "Karmengo Ama Birjina arrantzaleen babes". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



SAIOA PERONA

IZAN KA IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

KARKARA

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

